

ZUMARRAGA / Liburutegi berriaren lehen orduetan normaltasuna izan da nagusi

Liburutegia irekitzeaz gain Arte Ederren eskola ere hasi da lanean

I. Luzuriaga

Liburutegi berriak atzo ireki zituen ateak Zelai Arizti kultur etxeko lehen solairuan. Goizean poliki-poliki gerturatu zen jendea, bisitari gehiago arratsaldean espero bazuten ere, haurrak batez ere.

Dena den, lehen orduetan joan zirenek itxura ona, argitasuna eta aukera zabala azpimarratu zuten, besteak beste, arduradunen arabera. Bihar liburutegien nazioarteko eguna izanik, aste berezian ireki dute, baina ez dute hori ospatzeko ekitaldirik prestatu, irekitzeko dena prest izatearekin nahikoa lan izan dela eta. Liburutegi ak ohiko ekitaldiak antolatzen jarraituko du, adibidez irakurzaletasuna bultzatzeko jardunaldiak, oraingo honetan gauza gehiago antolatzeko espazioarekin.

Berritasunen arloan, atal desberdinez eta lekuaz gain, ordutegia ordubete zabaldu da, 20:30ean itxiko baita. Goizean 10:30etik 13:00etara irekiko dute eta arratsaldean 16:00etatik aurrera.

Bai liburutegiko, bai kultur etxeko arduradunek azpimarratu dutenez, ekinaren ekinez ariko dira datozen egunotan martxan, erritmoa erabat hartu arte. Momentuz lau pertsona ariko dira liburutegian lanean, bi goizetan eta bi arratsaldeetan.

Liburutegiaz gain, Arte Ederren eskolak ere atzo hasi zuen ikasturte berria, bere gelak estreinatuta.